



euskaltel

Euskaltelek nabigazio mugikorraren abiadura areagotu du Metro Bilbaoren sarean

- Euskal operadoreak Bilbo inguruko garraiobideko sarearen ahalmena zabaldu du, bere bezeroen nabigatze-abiadura % 15 baino gehiago hobetzeko.

Bilbo, 2024ko irailaren 20a.- [Euskaltelek](#) nabigazio mugikorra hobetu du Metro Bilbaoren sarean, telekomunikazioetako euskal operadorearen bezeroek **esperientzia jarraitua eta hobeezina** izan dezaten deietan eta **4G eta 5G Internet mugikorraren** sarbidean, Bilbo inguruko garraiobidean doazenean.

Nabigazio mugikorraren abiadura % 15etik gora hobetu ahal izateko, Euskaltelek (MASORANGE taldearen marka Euskadin) metroko **sarearen ahalmena areagotu du.**

**Orain,
metroan
ere
hegan.**

*Mugikorreko nabigazio-abiadura
% 15 handitu dugu Bilboko metroan.*

Euskaltelek % 100eko **4G eta 5G estaldura** eskaintzen du Bizkaiko hiriburuko metroan. Euskadin diharduten MASORANGE taldeko gainerako marken bezeroek ere gozatuko dute hobekuntza horretaz.

Banda zabaleko estaldura handiena lurraldean

Euskaltel da Euskadiko etxe eta negozioen aukera gogokoena. **Euskadiko biztanleen % 92k baino gehiagok dute Euskaltelen eta MASORANGEren 5G teknologia mugikorra erabiltzeko aukera**, eta horretarako prestatuta daude. Ia biztanleriaren % 100ek du 4G estaldura.

Gaur egun, **Euskaltel/MASORANGE FTTH zuntz optiko bidez iristen da** Euskadiko 251 udalerrietako **1,25 milioi etxe eta negozio baino gehiagotara**; beraz, ia biztanleriaren % 100i ematen dio estaldura. Gainera, arrakastaz amaitu du kable-sarea zuntzera aldatzeko prozesua.

Bestalde, **Euskaltel/MASORANGE da enpresei Stand Alone 5G zerbitzua eskaintzeko gaitasuna duen operadore bakarra Euskadin**; 5G aurreratuena da, kalitate eta segurtasun handiena bermatzen dituen (adibidez, 5G sare pribatuen bidez).

Prentsarako kontaktua:

Nekane Ortega

noalbarran@euskaltel.com